



EHUNDURA

ZER DA EHUNDURA?

Ehundura gainazal bat ikustean nahiz ukitzean jasotzen dugun uniformetasun sentrazioa da.

Ehundura bat lortzeko, oso neurri txikia duten elementu berdinak hautatu behar dira (arroz aleak, fideoak, puntuak, segmentuak, karratuak, orban irregularrak...) eta gainazal baten gainean uniformeki kokatu, elementuen artean distantzia txikia utziz.



Objektu guztien gainazalek kanpoko itxura eta ukimen ezaugarri desberdinak dituzte: gainazal bat zerez eginda dagoen eta ea latza ala leuna edo zimurtsua ala laua den, ikusmen eta ukimenaren bidez hauteman dezakegu.

Objektu baten gainazala ukitzean jasotzen dugun ukimenezsazioak gainazal horren ukimen-ezaugarriei buruzko informazioa ematen digu.



1 - Materiazko ehundura:




Objektu erreal bakoitzaren gainazalak duen ukimen-ezaugarriari materiazko ehundura deitzen diogu: egurra, papera, kartoia, metala, beira, buztina, plastilina, ehuna, plastikoa, kortxoa..., Guk geuk ere, materiazko ehundurak sor ditzakegu gainazal baten gainean zenbait tresna eta prozedura erabiliz:

.Gainazalean urradurak edo trazak egiteko edozein tresna (puntzoia, iltzea, hortza, karraka, etab.) erabiliz.

.Gainazal batean aztarnak uzteko edozein gai likido erabiliz, paper zatitxoak, hariak, eta abar itsatsiz.

Ehundura geometriko edo organikoak



- Materialazko ehundura bat osatzen duten elementuak geometrikoak direnean materialazko ehundura geometrikoa deitzen diogu. Elementu geometriko horiek berdinak edo oso antzekoak izan behar dira eta haien arteko distantziak uniformeak izan behar du.

- Materialazko ehundura bat osatzen duten elementuak geometrikoak ez direnean materialazko ehundura organikoa deitzen diogu. Materialazko ehundura organiko baten elementuen arteko distantziak ez du hain uniformeak izan behar.



2 – Ehundura grafikoak:

Gainazal baten gainean material, tresna, teknika grafiko (marrazketa, margotzea, estanpatzea) edo baliabide teknologiko (argazkigintza, ordenagailu bidezko diseinu grafikoa) desberdinak erabiliz sortzen dugun ehundura da.

Ehundura grafikoak soilik ikusmenaren bidez hauteman daitezke. Ehundura grafikoak egiteko erabil daitezkeen oinarrizko material eta prozedura grafikoen artean honako hauek aipatuko ditugu:

- Euskarriak: paper mota desberdinak, kartoi mehea, kartoia, plastiko, metal edo zurezko xaflak.
- Materialak eta tresnak: margo likidoak, tinta, grafito eta kolore lapitzak, klariona, ikatza, rotulkiak,
- Prozedurak: gai likido bat lainoztatzea edo igurztea, irudiak fotokopiatzea; materialazko ehundurak estanpatzea, kalkatzea...



Ehundura grafikoen bidez bi dimentsioko formak sor ditzakegu; ehundura osatzen duten elementu grafiko batzuen arteko distantzia gutxitzen badugu eta gainontzeko elementu grafikoen arteko distantzia handitzen badugu, formak agertuko dira.

Egunkari bateko edozein argazki fotokopiagailuan handitzen badugu puntuz osatutako ehundura baten bidez eginda dagoela hautemango dugu.


Ehundura natural eta artifizialak

Naturak eskaintzen dizkigun gaien ehundurari, natural deitzen diogu; horren adibide dira larruazalak, enborrak, frutak eta abar.



Prozesu teknologikoen bidez sortutako ehundurei ehundura artifizial deritze.

Esate baterako zementua, plastikoa, kartoia edota papera.



Materien funtzio eta esangurak

Edozein motatako ehundura batek funtzio praktiko edo baliagarri bat bete dezake.

Adibidez, boligrafo edo etxetresna elektrikoen heldulekuetako ehundurak ez irristatzeko balio dute, beraz, funtzio bat betetzen dutela esan genezake.



Batzuetan, funtzio praktiko eta estetikoak bateratu egiten dira, adibidez kristal batzuetan. Kristalaren materiazko ehundurak funtzio praktikoak (argiari pasatzen uzten dio baina gardentasuna ezabatzen du) eta aldi berean funtzio estetikoak (kristala apainduta egon daiteke) bete ditzake.





Itsaso
Goretti
Idoia
Amaia